

# GURE JENDEAK: ANIZTASUNA ETA KOHESIOA

GIZARTE FOROA - CIVICAN PAMPLONA-IRUÑEA, 28/05/2018

Herritarren mahaietan jasotako galderei erantzuna emateko, Gizarte Foro hau hiru bloketan banatu dugu, agertutako korapilo-multzo ezberdinak modu egokian askatzeko nahian. Lan-saioan ezberdinen arteko elkarrizketa izango da helburu nagusia eta, hori abiapuntu, zoru komun minimoak ezarri, beti txikitik handira jokatuz.

## 1. ABIAPUNTUA: Lurraldea(k) eta identitatea(k)

## 2. BIDEA: Hezkuntza

## 3. BARNE LOTURAK: Kohesio bidean (gizarte konfiantza)



## BARNE LOTURAK: Kohesio bidean

Lurralde, herri zein herritarren arteko barne loturak izan eta berriak sortzea beharrezkoa da kohesioaren bidean. Honetan gizarte konfiantzak duen papera oinarri-oinarrian agertzen da. Etorkizun kohesionaturako egitasmo partekatuak irudikatze bidean balioez, interesez eta elementu komun eta dibergenteez arituko gara.

### Herritarrek identifikatutako oztopoak:

- Estereotipo eta aurreiritziak
- Identitate aniztasuna, getoak
- Ezberdintasun sozialak
- Indibidualismoa eta konfiantza eza
- Banaketa administratibo, kulturala...
- Gutxiengoen integrazioa

### Herritarren zoru komuna:

- Askatasuna, zintzotasuna, enpatia, konfiantza, konpromisoa...
- Auzolana eta elkarlana
- Lurraldearekiko lotura
- Aniztasunaren onarpena

## HERRITARREN GALDERAK

- ❖ Gaur egungo gizarteetan, zer espazio eta balio komun identifikatu daitezke? Euskal lurraldeen gizarte ezberdinen arteko zer espazio komun sortu daitezke?
- ❖ Balioak eta kohesioa: Nola kohesionatuko gara? Nola kohesionatu daitezke interes ezberdinak? Gatazkak kudeatzeko zer erreminta ditugu?
- ❖ Egitasmo partekatua(k): Nola sortu daitezke kohesio eta elkarlanerako espazio berriak? Zer espazio partekatu dago gaur egun euskal lurraldeen artean? Eta zeintzuk falta zaizkigu edo sortu ditzakegu kohesioaren bidean?